



Joan den 2010eko abenduaren 30ean, ehunka afizionatuk goraino bete zuten Bilboko Kafe Antzokia. Duela hamabost urtetik hona Euskal Herriko malenkonia berdea marrazten aritu den koblakari batek, **Mikel Urdangarinek**, piztu zuen interes hori, hain zuzen ere, folk-rokaren aldeko apustua egiten duten euskal bakarlari bakanetako batek (nahiz musika-banda batean edo hainbat koreografiatan ere oinarritzen den), mundu horretan narrazioaren beraren

edertasun eta dotoretasunaren parte bilakatzen dituelarik erritmo ertainak.

Bilboko neguko gau horretan bertara hurbildu ziren guztien begiek dir-dir egin zuten lehen abestitik azken agurreraino, hogeita zortzi musika-lan eta bi orduetik gorako kontzertua osatuz. **Mikelek** plazaratutako dozenaka kanta horien soinuak, formatuak eta purutasunak garbi erakutsi zuten Zornotzako musikariaren sormena eta erreperorioa musikaren eta kulturaren egungo eszenak daraman itxurazko lasaitasun horretatik haratago doazela. Izan ere, artisten lanak iraganean pilatzen doaz, eta iragan hori ahanzturaren txoko moduko bat bilakatzen doa. Baina, zorionez, "**Mikel Urdangarin zuzenean 2010.12.30**" bezalako diskoek, ekarpen historiko handi baten jabe diren aldetik, birkokatu egiten dute atzealde zabal, delikatu eta inspirazio handiko hori.

**Urdangarinek** hainbat abestiren errepasoa egin zuen Kafe Antzokian; etxeke leihotik apaltzen ari den eguzkiarekin batera sortuak dira asko, gehienak sentimenduaz eta ohikeriaz mintzo dira, batzuetan zuzeneko lengoia batez, besteetan esaldi bakoitza luma poetiko leun batez ziprztinduz. Agian kasualitatea izango da, baina lehen CDak bigarrenak baino estalgarri gehiago dituela dirudi, agian gitarra elektrikoak presentzia handiagoa duelako, besterik gabe. Nolabait ere, lehen ordua pasadizo epikoz eraikia dago, hari-instrumentuen konponketak gailentzen direla eta teklek ñabartzen dutela bateriaren arrasto seguruarekin; gitarrak su hartzen du soinu klasiko nahiz berriekin eta abestien zerrenda oparoa osatuz doa Urdangarinaren egunsentiko ahots eta ulu zoliarekin. "*Hau ez da amodiozko kanta*", "*Anek idatzi dit zutaz*", "*Hauskor*", "*Martxa baten lehen notak*", **Mikel Laboaren** bertsio bereziki birlandua, *Ezin esan...*) aukeratu litekeen multzo bat da. Bikaintasunaren eta sentsualitatearen arteak ukitutako bihotz, buru eta eztarria dituen trobalari baten musika-epopeia irudikatzen du entzunaldiak. Nolanahi ere, abestien aukeraketa zabal horretan, bi CDen arteko oreka nagusitzen da, eta beraz, bigarrenaren kasuan ere antzeko sentsazioak transmititzen dira, nahiz eta "*Txatxamatxalinatxu*", "*Killin*", "*Edari goxoa*" edo "*Zurekin*" abestiak dinamismoarekin jolasean dabilzan. Hemen aurkitzen da, halaber, "*Haitzetan*" kantu xumea, ezinegon lazgarriko abestia, **Mikelek** osatutako lehenengoetako bat; lan hori denborarekin batera haziz joan da, agian baita artistaren heldutasunagatik eta duela urte batzuetatik hona laguntzen dion banda bikainagatik ere.

Horrelakoxea izan zen laranja eta gaztainazko ostegun hartako gaua: hasperenetik aztoramendura, malenkoniatik menderatu guztien irribarre leun eta konplizera, Auñamendiko basoetatik "Wonderful life" lanaren bertsio koloristara (Black musikari britainiarraren 87. urteko arrakasta), Lekandako 1.300 metroetatik Kafe Antzokiaren 25 metroetara..., seirehun ezdarri inguru kontzertuaren jabe egin eta taldearen parte bilakatu baitziren. Ez zen goialderik eta behealderik izan, ez eszenatokirik eta ez zulorik; gau horretan dena bat izan zen eta "Mikel Urdangarin zuzenean 2011.12.30" lanak halaxe jaso zuen. Gainera, gualdi erabatekoa eta distiratsua izan zen, inspirazio eta gar handikoa.

### **Kredituak:**

**Bingen Mendizabal:** zazpi hariko biolina, Gasteizkoa. Soinu-banden egile goraiatu eta miretsia, **Hertzainak** taldearen eta iraganeko nahiz orainaldiko beste talde batzuen kolaboratzailea. Ahal badu, beti eskainiko digu irribarre bat.

**Nika Bitchiasvili:** biolina, Tbilisikoa, Georgia. 2001az geroztik dago hirian, horietatik bost Mikelekin. **Bingen Mendizabal**, **Arturo Blasco** eta **Alex Ruiz de Asuarekin** batera **Txatarrería Keaton** taldeko partaideetako bat da. Klaseak ematen ditu... eta oso serioa da!

**Rafa Rueda:** gitarra elektrikoa, Mungiakoa. **ExP.L.T.**, ibilbide luzea egin du bakarlari gisa eta hainbat proiektutan lan egin du musikari laguntzaile modura. Rafak gora egin du musikalki, euskal artista gutxi bezala. Eszenatokian haserre dirudi, baina behean zoriona kutsatzen duten ikur atsegin bilakatzen da.

**Sahielá Gzmaier:** bateria-jolea, Gasteizkoa. Berez, **Fernando Álvarez Plagaro** du izena, baina jakin badakigu bateria-jole gehienak, eta are gehiago onak badira, "jota" daudela.

**Koldo Uriarte:** teklatuak eta melodikoa, Araiakoa, Araba. Beste euskal artista batzuekin lan egin du, hala nola **Gari**, **Betagarri**, **Rafa Rueda** eta, halaber, **Bingen Mendizabalen** soinu-banda askotan ere parte hartu du. Azken 10 urteetan teklista eta musika-zuzendari gisa parte hartu du penintsula osoko punta-puntako artisten disko eta biretan. Dotorea da, fina da.

Gonbidatu berezia: **Josu Zabala**, trikitilaria, Mekoletakoa, Otxandio. Musikari handia, baina, are pertsona hobea, **Mikelen** lagun zaharra eta gizon prestua, goizaldean halako ilajea eduki arren.

**Mikel f Krutzaga:** Ekoizpen artistikoa. (Teknikaren mago bat)

**Greg Calvi:** Masterizazioa New Yorkeko Sterling Sound estudioetan eta **Mikel f Krutzaga Musikart** estudioetan.

Eta horrelakorik ezer ez zen izango **Mikel Urdangarinen** dohain gordin eta emoziozkorik gabe, oraindik ere bertsolari Mekoletako jaietan.

**Pablo cabeza**



El pasado 30 de diciembre de 2010, cientos de aficionados completaron el aforo de Kafe Antzokia de Bilbo. El interés lo había despertado un juglar que lleva dibujando la verde melancolía de Euskal Herria desde hace quince años, **Mikel Urdangarin**, uno de los escasos solistas (aunque se apoye en banda o en diversas coreografías) euskaldunes que apuesta por el folk-rock, un mundo donde los ritmos medios son parte de la belleza y esbeltez de la narración.

En Bilbo, en esa noche de invierno, los ojos de todos los asistentes brillaron desde el primer título hasta el saludo final, veintiocho temas y más de dos horas de concierto. El sonido, el formato, la pureza, las decenas de canciones que **Mikel** reveló demostraron que el repertorio y la creatividad del músico de Zornotza habían llegado mucho más allá de la aparente calma con la que discurre la escena músico-cultural. Ocurre que la obra de los artistas se acumula en el pasado, que viene a ser como un rincón del olvido. Más, por fortuna, discos como "**Mikel Urdangarin zuzenean 2010.12.30**", con un gran aporte histórico, regurgitan la amplia, delicada e inspirada trastienda.

**Urdangarin** recorrió en Kafe Antzokia muchas canciones creadas desde la ventana de casa con el sol en ocaso, la mayoría hablando de sentimientos y costumbrismos, a veces con lenguaje directo, en ocasiones tiznando cada frase con un suave lápiz poético. Puede ser casualidad, pero el primer cedé se percibe con más envolturas que el segundo, quizá simplemente porque la guitarra eléctrica tiene más presencia. De alguna forma, la primera hora se construye de balconadas épicas donde los arreglos de cuerda subliman, donde las teclas matizan con la marca segura de la batería, donde la guitarra flamea con clásicos y nuevos sonidos, donde la voz crepuscular y el trémelo de **Urdangarin** completan una exuberante lista de títulos. "*Hau ez da amodiozko kanta*", "*Anek idatzi dit zutaz*", "*Hauskor*", "*Martxa baten lehen notak*", versión de **Mikel Laboa** excepcionalmente reelaborada, (*Ezin esan...*) es uno de los posibles bloques a elegir. La escucha roza la epopeya musical de un trovador con el corazón, la mente y la garganta tocados por el arte de lo sublime, de lo sensual. No obstante, en esta amplia selección de canciones, el equilibrio ronda ambos cedés, por lo que en el caso del segundo también se transmiten sensaciones similares, aunque "*Txatxamatxalinatxu*", "*Killin*", "*Edari goxoa*" o "*Zurekin*" jueguen con el dinamismo. Aquí también se encuentra la delicada "*Haitzetan*", canción de vértigo turbador y una de las primeras canciones de **Mikel**; composición que con el paso del tiempo sigue creciendo, quizá también por la madurez del artista y la soberana banda que le acompaña desde hace unos años.

Así fue la noche de aquel jueves de naranjas y castañas: del suspiro al azoramiento, de la melancolía a la suave y cómplice sonrisa de todos los subyugados, de los bosques de Auñamendi a la versión colorista de "*Wonderful life*" (un éxito del 87 del músico británico Black) de los 1.300 metros de Lekanda a los 25 de Kafe Antzokia..., donde más de seiscientos gargantas tomaron el concierto para convertirse en una parte más del grupo. No hubo arriba y abajo, el escenario y la fosa, esa noche, fueron el todo y "**Mikel Urdangarin zuzenean 2011.12.30**" lo recoge como tal. Además, de ser una gran noche franca y brillante, inspirada y vehemente.

## **Créditos:**

**Bingen Mendizabal:** violín de siete cuerdas, de Gasteiz. Notable y admirado autor de bandas sonoras, colaborador con **Hertzainak** y otras bandas tanto del pasado como del presente. Si puede, siempre nos deja una sonrisa.

**Nika Bitchiasvil:** violín, de Tbilisi, Georgia. Lleva en la ciudad desde 2001, de ellos cinco con **Mikel**. Forma parte de **Txatarrería Keaton**, junto con **Bingen Mendizabal**, **Arturo Blasco**, y **Alex Ruiz de Asua**. Imparte clases... ¡y es muy serio!

**Rafa Rueda:** guitarra eléctrica, de Mungia. **ExP.L.T.**, amplia carrera en solitario y participe en diferentes proyectos como músico de apoyo. **Rafa** ha crecido musicalmente como pocos artistas vascos. En escena parece enfadado, pero abajo es un emoticón de los que contagian felicidad.

**Sahiel Gagmaier:** batería, de Gasteiz. En realidad se llama **Fernando Álvarez Plagaro**, pero ya se sabe que la mayoría de los baterías, y más si son buenos, están un poco "tocados".

**Koldo Uriarte:** teclados y melódica, de Araia, Araba. Ha trabajado con otros artistas vascos como **Gari**, **Betagarri**, **Rafa Rueda** y también en muchas de las bandas sonoras de **Bingen Mendizabal**. En los últimos 10 años ha participado como teclista y director musical en los discos y giras de artistas peninsulares de primera línea. Es elegante, es fino.

Invitado especial: **Josu Zabala**, trikitixa, de Mekoleta, Otxandio. Gran músico, pero, si cabe, aún mejor persona, veterano amigo de **Mikel** y un noble a pesar de sus pelos de amanecer.

**Mikel f Krutzaga:** Producción artística. (Un mago de la técnica)

**Greg Calvi:** Masterización en Sterling Sound Nueva York y **Mikel f Krutzaga** en los estudios **Musikart**.

Y nada de todo esto existiría sin el talento crudo y emocional de **Mikel Urdangarin**, aún bertsolari en las fiestas de Mekoleta.

**Pablo cabeza**